


NOLA ARI DA ERAGITEN COVID-19ren KRISIA NAFARROAKO KULTUR SEKTOREETAN?


Nafarroako Gobernuako Kultura Zuzendaritza
Nagusitik aurrerapenak



Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiak (KZN) 2020ko martxotik lanean jarraitzen du, hainbat alderditan, sektoreko eragileekin batera, Covid-19k Foru Komunitateko kultura-sektorean sortutako krisiaren irismena ezagutzeko eta jarduera-proposamenak diseinatu ahal izateko

Laburbilduta, orain arte egin diren jarduera nagusiak jaso dira:






Mahai sektorialak Sortzea

Krisia hasi zenetik, KZNak hainbat lan-mahai sustatu ditu, eta horietan kultura-eragileek parte hartu dute, lehenengo minututik irismenaren eragina bertatik bertara ezagutzeko. Mahai horiek KZNarekin elkarlanean jarraitzen dute krisitik ateratzeko etorkizuneko begirada bat eraikitzeko.

Eraginaren irismenaren azterketa

2020ko maiatzean, krisiak Foru Komunitateko kultura-sektoreetan izan duen eragina neurtzeko azterlan bat jarri da abian. Azterlan horretan zeharkako estatistika-iturrien azterketa eta sektoreko eragileei zuzendutako inkesta baten emaitzak konbinatu dira. Bi bide horien konbinazioak krisiak enpresetan, enpleguan, enpresen eta autonomoen jardueran eta abarretan duen eragina sakontzea ahalbidetu du.




Adierazleen panela

Azken batean, adierazleen panel bat sortu nahi da, egungo egoera COVID-19-aurreko egoerarekin alderatu ahal izateko eta datozen hilabeteetako bilakaeraren aldizkako jarraipena egin ahal izateko (2020ko abendua-2021eko urtarrila), eta sektorean duen eragina arintzeko neurriak hartu ahal izateko.

Sinergiak eta lankidetzak

Irismena zeharkako informazio-iturrien bidez neurtzeko, Foru Komunitateko hainbat erakunde eta antolakunderen laguntza izan da: Nafarroako Estatistika Institutua, Errealitate Sozialaren Behatokia, Foru Ogasuna, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia,...

Iturri horien osagarri, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako lan-mahaietan kultura-eragileek emandako informazioa dago, krisialdiaren hasieratik (erakundeak: NICDO, Iruñeko Udala, AESZE. NA, NAPAE, Napar, etab.; hainbat sektoretako eragileak: arte eszenikoak, zuzeneko musika, argitalpen-industria, ikus-entzunezkoen industria, etab.). KZNrekin preskriptore gisa lankidetzan aritu diren eragileak, egindako inkesta bazkideen artean zabalduz. Sektoreko agenteek eragileei zuzendutako inkesta egiten ere parte hartu dute.



Eskuragarri dagoen informazioa (2020ko abuztua)

Jarraian, abuztura arte zeharkako iturrietatik jasotako informaziotik ateratako ondorio nagusiak jaso dira.

Iturri batzuk hiru hilekoak edo urtekoak direnez, eta, beraz, oraindik itxi ez direnez, denborak aurrera egin ahala, adierazleen panelak sakonago definituko ditu aipatutako joerak.

ERAGINA ENPRESA-SAREAN

Nafarroan, 2020ko urtarrilaren 1ean, kultura arloko 1.455 enpresa zeuden, Foru Komunitateko enpresa-sare osoaren % 3,9¹.

Kultura-arloko jarduerak hazteko ahalmen handia erakutsi zuten. Ildo horretan, kultura-arloko enpresen kopurua % 7,4 hazi zen 2019ko datuekin alderatuta, Nafarroako Foru Komunitatean erregistratutako datu orokorra baino askoz handiagoa (+% 0,1).

Edonola ere, Nafarroako Estatistika Institutuak egiten duen Erkidegoko Enpresen Direktorioko datu horiek urterokoak dira, eta ez dute krisi horren eraginaren panoramikarik lortzen utziko 2021. urtera arte.

Gizarte Segurantzarako kotizazio-kontuen estatistika-fitxategian oinarrituta egindako **Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresen estatistikak** informazio dinamikoagoa ematen du, baina partziala, ez baitu bere kargura soldatapeko langilerik ez duten autonomoen informaziorik jasotzen, horiek ere enpresen pareko jarduera ekonomikoko unitateak baitira. Beraz, beharrezkoa da iturri horretako informazioa osatzea afiliazio-estatistikek langile autonomoei buruz ematen duten informazioarekin.

1. Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Foru Komunitateko Enpresen Direktoria. Urteko datuak.

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresen estatistikako datuek honako hau erakusten dute:

- ▮ Pandemiak eragindako **krisiaren hasieran: % 4ko jaitsiera** Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuetan 2020ko martxoan, 2019ko hilabete bereko datuekin alderatuta.
- ▮ **Krisiaren unerik sakonena maiatzean izan zen**; hilabete horretan, kultur arloko lau kotizazio-kontutatik bat galdu zen ia (-% 24,4), martxoan erregistratutakoekin alderatuta.
- ▮ **Ekainetik aurrera, goranzko joera hasten da hileko** bilakaerari dagokionez, ekainean, uztailean eta abuztuan % 4,7, % 4,5 eta % 7,1eko igoerekin, hurrenez hurren.
- ▮ Nolanahi ere, **azken hilabeteetako datuak positiboak izan arren, 425 kotizazio-kontuek adierazlea askoz ere maila baxuagoan kokatzen dute krisia hasi zenekoa** (480 kotizazio-kontu martxoan) edo 2019ko amaieran erregistratutakoa (519 kotizazio-kontu abenduan) baino.

Kultura-arloko enpresa-sarearen ezaugarri espezifikoek eta hura osatzen duten jarduera batzuen berezitasunek garrantzia dute datu hauek aztertzerakoan:

- ▮ Enpresen kotizazio-kontuetako datuek **martxoan sektoreko lau enpresatik hiruk gehienez 5 enplegu zituztela (% 76,9) eta lautik batek ez zuela langilerik kontratatuta (% 24,8) erakusten dute.**
- ▮ **Tamaina txikiagoko enpresek zailtasun handiagoak izan dituzte krisiari aurre egiteko.** Alde horretatik, datuek kotizazio-kontuetako jaitsierarik handienak bost enplegu arteko enpresetan erregistratu direla erakusten dute, eta gainerakoen gainetik nabarmentzen da langilerik ez duten enpresetan izandako beherakada. Segmentu horretan, maiatzean, sektoreko 117 kotizazio-kontuetatik 105 galdu ziren, martxoarekin alderatuta. Maiatzeko datu okerrago horrek ekainetik abuztura bitartean langilerik gabeko enpresetan susperraldia handiagoa izaten ari dela esan nahi du; hala ere, oraindik martxoan erregistratutakoa baino askoz txikiagoa da (67 kotizazio-kontu abuztuan, eta 119, berriz, martxoan).

Arte eszenikoen sektorea izan da kultura-arloan kaltetuena enpresei dagokienez.

- T Hain zuzen ere, sektore horri lotutako kotizazio-kontuen kopurua % 65,2 jaitsi zen martxotik maiatzera bitartean, eta 112 izatetik 39 izatera igaro zen krisiaren okerrean.
- T Datua esanguratsua da martxoan arte eszenikoen sektoreak kultura-arloko kotizazio-kontuen % 23,3 biltzen zituela kontuan hartzen badugu, argitalpen-industriaren pisu erlatiboak soilik gaituta (% 37,1).
- T Era berean, azpimarratu behar da arte eszenikoen sektorean biltzen dela enpresa txiki gehien; hala, martxoan, sektoreko kotizazio-kontuen % 62,5 langilerik gabeko enpresei zegokien, eta proportzio hori % 86,6raino iristen da gehienez bi langile dituzten enpresak kontuan hartzen badira.

Gizarte Segurantzako afiliazioaren urte arteko aldakuntza-tasaren bilakaera, kultura-jardueren arabera

SEKTOREA	2019		2020			
	1H	4H	1H	2H	3H	
	Martxoa	Abendua	Martxoa	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Arte eszenikoen jarduera osagarriak	13	15	18	11	12	14
Artxibo jarduerak	1	2	2	1	1	1
Liburutegi jarduerak	3	3	2	2	2	2
Museo jarduerak	15	14	13	12	13	13
Arte eszenikoak	114	131	112	52	58	72
Arte plastikoak eta ikusizkoak	15	11	8	8	7	7
Arte- eta literatura-sorkuntza	21	23	15	9	9	11
Leku eta eraikin historikoen kudeaketa	2	2	2	2	2	2
Ikuskizun-aretoen kudeaketa	8	9	7	5	9	8
Ikus-entzunezko industria	45	55	46	43	47	57
Argitaratze industria	180	173	178	160	163	164
Industria fonografikoa	4	3	2	2	1	1
Bideo-jokoa/Digitala	79	78	75	73	73	73
Guztizko orokorra	500	519	480	380	397	425

Kultur sektoreetako Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuen kopurua, enpresaren tamainaren arabera

ENPLEGUAK	2019		2020				
	1H	4H	1H	2H	4H		
	Martxoa	Abendua	Martxoa	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Bat ere ez	120	147	119	14	34	39	67
1-2	203	185	180	174	172	182	176
3-5	77	76	70	66	69	70	77
6-9	36	42	44	43	40	41	38
10-19	25	29	28	28	27	27	29
20-49	30	32	29	28	27	28	28
50-99	6	5	7	7	8	7	7
100-249	3	3	3	3	3	3	3
250 edo gehiago	0	0	0	0	0	0	0
Guztizko orokorra	500	519	480	363	380	397	425

ERAGINA ENPRESEN EKONOMIAN

Enpresetan izango duen eragin ekonomikoari buruzko hurbilketa bat egiteko, bi informazio-iturri hartu dira kontuan:

- ┆ Batetik, Nafarroako Foru Ogasunak emandako BEZaren datuak, sortutako BEZaren oinarrien fakturaziora hurbiltzea ahalbidetzen dutenak. Kasu honetan, datuak EJZren 301., 302. eta 303. epigrafeei atxikitako adierazpenei dagozkie; beraz, errolda-informazioa bada ere, partziala da, ez baita kultura-arloko jarduera guztiei buruzkoa.
- ┆ Bestalde, sektoreko enpresei egindako inkestan bildutako datuak, 2019ko hilabete bereberei dagokienez martxotik maiatzera bitartean izandako diru-sarreraren bilakaerari eta urte osorako aurreikuspenei buruzko datuak eman baitituzte. Kasu honetan, informazioa lagina da, baina sektore guztiei buruzko informazioa ematen du.

BEZaren datuek erakusten dutenez, krisia hasi aurretik ere joera negatiboa izan zen, 2019ko bigarren hiruhilekoan hasi zena, eta urte arteko % 8,1eko jaitsiera erregistratu zen sortutako BEZaren zerga-oinarrietan. Beherakada hori areagotu egin zen azken bi hiruhilekoetan, % 22,8ko eta % 14,6ko jaitsierekin.

2020ko lehen hiruhilekoan, krisiaren ondorioak partzialak dira oraindik; izan ere, neurri murriztaileenak martxoaren erdialdean sartu ziren indarrean, eta sortutako BEZaren oinarrien urte arteko bilakaera ere negatiboa da (-% 1,7), nahiz eta aurreko hiru hiruhilekoetan baino txikiagoa izan.

Bigarren hiruhilekoan, datuak behin-behinekoak badira ere, sektoreak jarduera galdu duela egiaztatu da, fakturazioaren bi heren galdu baititu 2019ko aldi berarekin alderatuta (% 67,0ko beherakada sortutako BEZaren oinarrian).

Kultur sektorean jasandako BEZaren zerga-oinarrien urte arteko aldakuntza-tasak.


	1H	2H	3H	4H
2019	%15,1	-%8,6	-%22,8	-%14,6
2020	-%1,7	-%67,0		

Inkestatutako enpresen ikuspegia.

- T Inkestan enpresek adierazi duten diru-sarreraren galeraren ildoan daude datu horiek; izan ere, % 58,3 jaitsi dira diru-sarrerak martxotik maiatzera bitartean, 2019ko aldi berarekin alderatuta.
- T Murrizketen kronologiari dagokionez, inkestako datuek erakusten dute diru-sarrerak askoz ere beherakada handiagoa izan dutela apirilean (-% 83) eta maiatzean (-% 94). Ildo horretan, kontuan hartu behar da azpisektoreen kulturaren barruan garrantzi erlatibo handia dutela, besteak beste, arte eszenikoen, musikaren eta zinemaren artean, jarduera nagusiak garatzeko publikoaren presentzia fisikoa behar baitute.
- T Bestalde, maiatzean, 2020. urte osorako galeren zenbatespena maila apalagoan zegoen (-% 31,2), eta hortik ondoriozta daiteke zenbait aurreikuspen zeudela urtearen amaieran jardueraren eta diru-sarreraren zati bat berreskuratzeko, are gehiago kontuan hartuta sektore batzuetan aurreikusitako jarduerak gerorako geratzen zirela.


- ̄ Ildo horretan, enpleguak eta kotizazio-kontuek udan izan duten goranzko joera sektoreak jarduera handiagoa izatearen zantzuak dira. Ildo beretik, Nafarroako Estatistikako Institutuak berriki argitaratu duen hirugarren hiruhilekoari dagokion Nafarroako hiruhileko Kontabilitatearen datuen aurrerapenak BPGren urte arteko beherakada (-% 6,1) bigarren hiruhilekoan erregistratutakoarekin alderatuta moteldu egin dela erakusten du (-% 18,5), azken hiruhileko horretan jarduera ekonomikoa pixkanaka suspertu izanaren ondorioz. Hala ere, Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratu duenez, merkatu-zerbitzuen partaidetza (horietan kokatzen dira kultura-jarduera gehienak eta krisi honek asko erasandako beste sektore batzuk, hala nola ostalaritza) beste sektore batzuen bano txikiagoa da.
- ̄ Hala, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, sektoreak susperraldi ekonomiko arina izan du hirugarren hiruhilekoan, baina gogora ekarri behar da zenbait jarduera ez direla itzuli hirugarren hiruhilekoa ondo sartu arte, hala nola Nafarroako Antzokien Sarearen programazioa, eta pandemiak azken asteetan izan duen bilakaerak neurri murriztaileagoetara itzultzea ekarri duela; hortaz, zalantzarik ez dagoenez, eta litekeena da jardueraren susperraldi horrek jarraipenik ez izatea laugarren hiruhilekoan, eta sektoreak maitatzean urte osorako egiten zituen aurreikuspenak ez betetzea.

Hileko diru-sarreraren aldakuntza 2019-2020



Iturria: Galdetegia

Covid 19aren ondorioz 2020rako aurreikusitako diru-sarreraren aldaketa



Iturria: Galdetegia

ERAGINA ENPLEGUAN-AFILIAZIOAN

Egungo krisiak kultur arloko enpleguan duen eragina aztertzeko, hiru informazio-iturri hartu dira kontuan: alde batetik, Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak, enpleguaren “stockaren” ikuspegia eskaintzen dutenak; bestetik, enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak, lan-merkatuaren fluxuari buruzko ikuspegia ematen dutenak; eta, azkenik, inkestaren bidez jasotako informazioa, informazio estatistikoa sektoreko enpresen egoerari eta igurikimenei buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatibo zehatzarekin osatzen duena.

Enpleguaren testuingurua

Komeni da gogoratzea kulturaren esparruan, estatu zein autonomia mailako sektore guztietan bezala, lan-merkatuak bi talde handitan banatzen duen egitura duala duela. Alde batetik, enplegu eta diru-sarrera egonkorrak dituzten langileak, eta, bestetik, kolektibo zabala egoera kaskarragoan daudenak, aldi baterako edo lanaldi partzialeko kontratuen mende.

Lan autonomia eta behin-behinekotasuna, Nafarroako kultur enpleguaren ezaugarri nagusiak

- ┃ Enpresen tamainari buruzko datuek erakusten dutenaren ildotik, afiliazio-datuek erakusten dute langile autonomoen proportzioa % 30etik gorakoa dela kulturaren esparruan; Foru Komunitate osoan, berriz, % 18 ingurukoa da.
- ┃ Bestalde, 2019an, sektorean egindako hamar kontratutik bederatzi aldi baterakoak izan ziren (% 90,6), eta 10 kontratutik 4 lanaldi partzialekoak (% 42,2).

Afiliazioaren bilakaera

Kultur arloan, Gizarte Segurantzaren afiliatuta egotearen joera positiboa 2020ko martxoan eten zen, pandemiaren hasierarekin batera (+% 0,0 2019ko martxoarekin alderatuta), eta zifra txarrenak maiatzean lortu zituen (-% 1,1 martxoarekin alderatuta). Ekainetik aurrera, pixka bat suspertzen hasi zen. Zehazki, Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikako datuek honako hau erakusten dute:

- ▮ Krisiaren aurretik, afiliazioaren bilakaerak kultura-arloan urte arteko aldakuntza-tasa positiboak izan zituen.
- ▮ Krisiaren hasieran, kultur arloko afiliazioaren joera positiboa gelditu egin zen, eta martxoaren 31n afiliazioaren aldakuntza-tasa % 0,0koa izan zen 2019ko martxoarekin alderatuta.
- ▮ Afiliazio-zifrarik okerrenak maiatzean izan ziren, 4.218 afiliatu baitzeuden kultura-arloko jardueretan; horrek esan nahi du afiliazioaren % 1,1 galdu zela martxoarekin alderatuta.
- ▮ Ekainetik aurrera, goranzko joera hasten da hileko bilakaerari dagokionez, ekainean, uztailean eta abuztuan % 4,7, % 4,5 eta % 7,1eko igoerekin, baina urte arteko datuei dagokionez, afiliazioa 2019koa baino baxuagoa da (-% 1,9 bigarren hiruhilekoaren amaieran, 2019ko datuekin alderatuta).

Eragin handiagoa Langile Autonomoen Araubide Berezian

Afiliazioaren galera handiagoa da Autonomoen Erregimenean Erregimen Orokorrarekin alderatuta. Zehazki, urtetik urterako datuei erreparatuta, 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako afiliazioak % 0,4 eta % 3,6 jaitsi dira, hurrenez hurren, Langile Autonomoen Araubide Berezian; Erregimen Orokorrean, berriz, gutxieneko hazkundera izan da lehen hiruhilekoan (+% 0,1), eta jaitsiera apalagoa izan da bigarrenean (-% 1,1).

Kultur arloko jardueretako Gizarte Segurantzako afiliazioaren urtetik urterako aldakuntza, afiliazio-erregimenearen arabera (hilabetearen amaierako datuak).

	Martxoak 30	Ekainak 30
Erregimen Orokorra ¹	+%0,1 (+3)	-%1,1 (-34)
Autonomoak	-%0,4 (-5)	-%3,6 (-49)
Guztira	%0,0 (-2)	-%1,9 (-83)

1. Artisten araubide berezia barne.

Oihartzun desberdina sektoreka: argitalpen-industria eta arte eszenikoak dira pandemiak gehien kaltetzen dituenak, eta ikus-entzunezkoen industrian afiliazioak gora egin du.

- ┆ Jaitsiera handiena, termino absolutuetan, argitalpen-industrian gertatu da; izan ere, lehen hiruhilekoan 102 afiliatu galdu ditu (-% 6,0) eta bigarrean 73 pertsona (-% 4,4) 2019ko erregistroekin alderatuta.
- ┆ Horren atzetik doa arte eszenikoen sektorea, afiliazioak % 6,0 eta % 5,9 egin baitu behera urteko lehen bi hiruhilekoetan.
- ┆ Beste sektore batzuek ere beherakada handiak izan dituzte ehunekoetan lehen hiruhilekoan, baina kopuru absolutuetan ez dira hain garrantzitsuak. Hala ere, urteko bigarren hiruhilekoan, arte eszenikoen eta arte- eta literatura-sorkuntzaren jarduera osagarriek ere beherakada handiak izan dituzte afiliazioan (-% 31,1 eta -% 11,6, hurrenez hurren).
- ┆ Kontrapuntu gisa, ikus-entzunezkoen industriak gorakada nabarmena izan du afiliazioan 2019ko datuekin alderatuta, % 23,1eko eta % 23,8ko igoerekin lehen eta bigarren hiruhilekoetan (76 eta 87 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Aurreko taulan ikus daitekeenez, pandemiaren hasieran, eragina handiagoa izan zen gizonen artean, baina bigarren hiruhilekoan emakumeen afiliazioak behera egin du gehien.

- ┆ Lehen hiruhilekoko datuek erakusten dute emakumeen afiliazioak pixka bat gora egin duela urtetik urtera (+% 0,9), eta gizonenak, berriz, apur bat behera (-% 0,6).
- ┆ Hala ere, bigarren hiruhilekoan, emakumeen afiliazioak beherakada handiagoa izan du gizonenarekin alderatuta, antzeko joera izan baitu (-% 3,9 eta -% 0,7, hurrenez hurren).

Inkestatutako enpresen ikuspegia

- ┆ 2020ko otsailean, inkestatutako enpresek joera negatiboa zuten enpleguan, 2019an zituzten 1.357 langileen aldean (-% 7,4). Hala ere, nabarmentzekoa da jarduera batzuetan aldatetak izan dituztela, urtarokotasuna dela eta.
- ┆ Hala ere, joera hori nabarmen areagotzen da martxotik aurrera, pandemiaren hasierarekin batera, eta -% 26,6ko aldakuntza izan da otsaila eta maiatza bitartean.

ERAGINA ENPLEGUAN-KONTRATAZIOAN

Kontratazioa nabarmen murriztu da martxotik aurrera

2020. urtearen hasieran, sektoreko kontratazioa dinamika negatibotik zetorren, baina martxotik aurrera beherakada nabarmena gertatu da (urte arteko jaitsiera -% 56,7koa izan zen apirilean), eta enplegu finkoari eta aldi baterakoari eragiten die:

- ┆ Krisiaren hasieran, martxoan, kontratu mugagabeek ez dute eraginik izan, eta bilakaera positiboa izan dute aurreko ekitaldiarekiko (+% 6,1). Hala ere, apirilean beherakada oso nabarmena izan da bai kontratuetan (-% 61,9) bai pertsonetan (% 62,6).
- ┆ Aldi baterako kontratazioak beherakada handiak izan ditu 2020ko martxotik aurrera (-% 36,1). Datu horien arabera, krisi honen hasieran, aldi baterako enplegua zuten pertsonak osatzen zuten kolektiborik ahulena. Egoera hori areagotu egin zen apirilean, non aldi baterako kontratazioaren urte arteko jaitsiera % 56koa izan baitzen.

Datozen hilabeteetan kontratazioaren bilakaera negatiboa aurreikus daiteke

- ┆ Azken hilabete hauetako daturik ez badago ere, pentsa daiteke bilakaera ez dela maila orokorrean erregistratutakotik gehiegi bereiziko, kontratazioaren murrizketak intentsitatea galduko baitu, baina, hala ere, 2019ko datuekin alderatuta, -% 30 inguruko mailan mantenduko da.
- ┆ Gainera, aurreikuspenak ez dira positiboak, kontuan hartzen bada ekaina eta abuztua bitartean sektoreko kontratazioaren laurden bat inguru egiten dela eta sektore batzuek oraindik ez dutela beren jarduera hasi irailera arte, edo partzialki egin dutela (esparru eszenikoen irekiera).

̄ Inkestatutako enpresen ikuspegia

Inkestatutako enpresek 10 kontrataziotik 7 baino gehiago bertan behera utzi zituzten 2020ko otsaila eta maiatza bitartean (% 72,4).

Sinatutako kontratuen eta kontratatutako pertsonen urte arteko aldakuntza-tasa 2020an¹ (2019ko hilabete berarekin alderatuta)

	Martxoa	Apirila		Martxoa	Apirila
Kontratuak	-%32,4	-%56,7	Pertsonak	-%26,8	-%57,7
Mugagabeak	%6,1	-%61,9	Mugagabeak	%4,5	-%62,6
Aldi baterakoak	-%36,1	-%56,0	Aldi baterakoak	-%31,0	-%57,0

1. Pertsona batek kontratu bat baino gehiago izan ditzake.

ERTEen ERAGINA ENPLEGUAN

Maiatzaren amaierara arte, 140 ERTE erregistratu ziren sektoreko enpresen artean, eta 770 langileri eragin zieten.

Maiatzetik irailera bitartean, ia ez dira murriztu ERTE bati atxikitako sektoreko enpresak: maiatzaren 25ean 140 izatetik irailaren 24an 132 izatera igaro dira. Prestazioen datuek erakusten dutenez, maiatzetik aurrera, langileak ERTE egoeratik, sartu eta atera egin dira, baina gaur egun ez dago sektoreari buruzko datu eguneraturik. Nolanahi ere, enpresa gehienek ERTEren egoera luzatzea erabaki izanak sektoreak duen hauskortasunaren eta ziurgabetasunaren erakusgarri da.

Hala ere, maiatzaren 25era arteko ERTEen datuek enpleguari eusteko baliabide garrantzitsua dela erakusten dute; izan ere, egun horretan ERTEek eragindako 779 pertsonak jarraitzen zuten Gizarte Segurantzari alta emanda, eta ez zegoen iraugitze-espedituek eragindako pertsonarik.

- 779 pertsona horietatik, % 80k aldi baterako eten zuten lan-harremana, eta gainerako % 20aren emaitza lanaldia murriztea izan zen.
- Sektoreka, afiliazio-datuen ildotik, Industria Editoriala (% 59,1), Ikus-entzunezko Industria (% 18,4) eta Arte Eszenikoak (% 13,5) dira ERTEek gehien eragiten dieten jarduerak.
- Eta sektoreko enpresa-ehunaren eta enpleguaren egiturarekin koherente izanik, 3 ERTEetatik 2k 6 langiletik beherako mikroenpresei eragiten diete, nahiz eta horiek eragindako pertsonen laurdenak baino zertxobait gehiago izan (% 26,4).
- Sexuaren arabera, ERTEek maiatzean eragindako pertsonen % 59,4 gizonak ziren; horrek sektorean eragin ekitatiboa izan dutela esan nahi du, kontuan hartuta emakumeek (% 36,7) eta gizonak (% 63,3) sektorean duten pisua.

Inkestatutako enpresen ikuspegia

Ilido horretan, inkestako datuek enplegua babesteko neurriak aktibatu izan ez balira egoera hori askoz ere negatiboagoa izango zela erakusten dute. Horrela:

- ┆ Inkestan parte hartu duten enpresetako langileen % 32,2k ERTE bat jasan dute. Nafarroako Estatistika Institutuak maiatzean jasotako datuekin bat datozen datu horiek; izan ere, % 30,3koa da erasandako langileen proportzioa, jarduera beretan afiliatutako pertsonetikiko.
- ┆ Gainera, % 7,3k enplegu autonomoari eusteko ezohiko neurriak hartu ditu.
- ┆ Beraz, inkestatutako enpresetako 10 langiletik 4 inguruk nolabaiteko laguntza jaso dute edo jasotzen ari dira enpleguari eusteko.

Enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente aktiboak

	Maiatzak 25	Irailak 24
Kultur-ekintzak	27	26
Arte eszenikoak	21	20
Arte eszenikoak, Arte plastikoak eta bisualak / Industria editoriala	1	1
Arte plastikoak eta ikusizkoak	5	5
Kultura eta sormen industriak	15	14
Ikus-entzunezkoen industria	86	82
Argitaratze-industria	6	5
Bideo-jokoa/Digitala	6	5
Ondarea	2	2
Liburutegiak	2	1
Museoak	2	2
Guztizko orokorra	140	132

Azken gogoeta gisa

Aurkeztu den informazioa Foru Komunitateko kultur sektoreak martxoan krisia hasi zenetik 2020ko abuztura arte izaten ari diren bilakaeraren **panoramika** bat da.

Hala ere, kontuan hartuta iturri asko hiruhilekoak direla, panoramika hori **modu dinamikoan osatuko** da estatistika-informazio hori jaso ahala.

Input horiei guztiei esker, **Adierazleen panela** eraiki ahal izango da, krisiak sektorean eragindako egoera islatzeko, eta, ikuspegi horretatik abiatuta, egungo egoeratik ateratzen joateko aukera emango dieten jokaleku eta estrategiak marraztuko dira enpresentzat eta pertsonentzat.

Fitxa teknikoa

Azterlanaren unibertsoa	Nafarroako kultura-sektoreak: artxiboak eta dokumentu-ondarea, liburutegiak, museoak, ondare historikoa, Arte eszenikoak, Arte Plastiko eta ikusizkoak, Musika, Ikus-entzunezko Proiektuak eta bideo-jokoak, Industria editoriala.
Erabilitako iturriak	<ul style="list-style-type: none"> ┆ Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen erregistroa kulturean (Nastat) ┆ Gizarte Segurantzako afiliazioa Nafarroan kultura-jardueretan (Nastat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia) ┆ Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Nastaten bidez) ┆ Nafarroako enpresen direktorioa (Nastaten bidez) ┆ Kontratuak (Gizarte Errealitatearen Behatokia) ┆ Sortutako BEZa eta alta emandako aitortzei dagokien BEZ kengarria EJZren 30. taldean (Nafarroako Foru Ogasuna, Nastaten bidez)
Informazioa biltzeko aldia	2020ko maiatza eta abuztua
Erakunde arduraduna	Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia - Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala
Erakunde laguntzaileak	Nafarroako Estatistika Institutua (Nastat), Gizarte Errealitatearen Behatokia, Nafarroako Foru Ogasuna
Azterketa egitea	Ikerpartners, S.A.

ERANSKIN ESTATISIKOA



ERAGINA ENPRESA-SAREAN

Nafarroako Foru Erkidegoko enpresa kopuruaren bilakaera 2019-2020 (2020ko urtarrilaren 1eko datuak)

	2019	2020
Kultura-sektoreak	1.355	1.455
Guztira Nafarroako Foru Erkidegoa	37.455	37.483
Kultura-sektoreen % Nafarroa osoarekiko	% 3,6	% 3,9
2019-1010 aldiko bilakaera		
Kultura-sektoreak		+% 7,4
Nafarroako Foru Erkidegoa guztira		+% 0,1

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Foru Erkidegoko Enpresen Direktoria.

Kultura-sektoreetako enpresen eta establezimenduen kopurua (2020ko urtarrilaren 1ean)

Esparrua / sektorea	ENPRESAK	ESTABLEZIMENDUAK
Kultur ekintza	779	814
Arte eszenikoak	458	478
Arte eszenikoak/Musika	32	36
Arte Eszenikoak Arte plastikoak eta bisualak- argitaratze-industria	139	144
Arte plastikoak eta ikusizkoak	150	156
Kultura eta sormen industriak	624	660
Ikus-entzunezko industria	77	83
Argitaratze-industria	367	388
Industria fonografikoa	28	29
Bideo-jokoa/Digitala	152	160
Ondarea	52	56
Artxiboak eta Dokumentu Ondarea		
Liburutegiak	7	7
Museoak	10	12
Ondare historikoa	35	37
Guztira	1.455	1.530

Kultur sektoreetako Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuen kopuruaren bilakaera, enpresaren tamainaren arabera

Enpleguak.	2019	2020				
	4H	1H	2H		3H	
	Abendua	Martxoa	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Bat dere ez	147	119	14	34	39	67
1-2	185	180	174	172	182	176
3-5	76	70	66	69	70	77
6-9	42	44	43	40	41	38
10-19	29	28	28	27	27	29
20-49	32	29	28	27	28	28
50-99	5	7	7	8	7	7
100-249	3	3	3	3	3	3
250 edo gehiago	0	0	0	0	0	0
Gutzizko orokorra	519	480	363	380	397	425


Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuta.

Sektorea	2019	2020					
	1H	4H	1H	2H		3H	
	Martxoa	Abendua	Martxoa	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Arte eszenikoetako jarduera osagarriak	13	15	18	10	11	12	14
Artxiboetako jarduerak	1	2	2	1	1	1	1
Liburutegietako jarduerak	3	3	2	2	2	2	2
Museoetako jarduerak	15	14	13	12	12	13	13
Arte eszenikoak	114	131	112	39	52	58	72
Arte plastikoak eta ikusizkoak	15	11	8	8	8	7	7
Arte- eta literatura-sorkuntza	21	23	15	9	9	9	11
Leku eta eraikin historikoen kudeaketa	2	2	2	2	2	2	2
Ikuskizun-aretoen kudeaketa	8	9	7	6	5	9	8
Ikus-entzunezko industria	45	55	46	41	43	47	57
Industria editoriala	180	173	178	158	160	163	164
Industria fonografikoa	4	3	2	1	2	1	1
Bideojokoa/Digitala	79	78	75	74	73	73	73
Gutzizko orokorra	500	519	480	363	380	397	425


Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuta.

ERAGINA ENPRESEN EKONOMIAN

Sortutako BEZaren oinarriaren urtetik urterako bilakaera



Sortutako BEZaren oinarriaren hiruhilekoen arteko bilakaera



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Nafarroako Foru Ogasunaren datuetatik abiatuta.



ERAGINA ENPLEGUAN

A. Afiliazioa

Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera, kultura-jardueren arabera (EJSN 4 digitu) 2019-2020

Sektorea	2019				2020				
	1H	2H	3H	4H	1H	2H		3H	
	Mar.	Ekai.	Iraila	Aben.	Mar.	Maiat.	Ekaina	Uztaila	Abuzt.
Arte eszenikoetako jarduera osagarriak	92	132	101	132	97	91	91	93	93
Artxiboetako jarduerak	4	5	4	5	4	3	3	3	3
Liburutegietako jarduerak	23	19	20	19	17	17	16	16	17
Museoetako jarduerak	51	46	51	46	52	52	50	55	55
Arte eszenikoak	451	425	450	478	424	415	400	421	405
Arte plastikoak eta ikusizkoak	175	183	183	183	181	173	173	175	173
Arte- eta literatura-sorkuntza	215	216	195	217	213	205	191	187	195
Leku eta eraikin historikoen kudeaketa	14	15	16	15	14	13	14	14	15
Ikuskizun-aretoen kudeaketa	112	118	108	118	123	127	122	116	116
Ikus-entzunezko industria	329	366	378	376	405	399	453	447	473
Industria editoriala	1.713	1.678	1.655	1.678	1.611	1.606	1.605	1.613	1.619
Industria fonografikoa	35	38	38	38	37	39	40	39	38
Bideojokoa/Digitala	1052	1095	1022	1095	1086	1078	1095	1099	1099
Guztira	4.266	4.336	4.221	4.400	4.264	4.218	4.253	4.278	4.301

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Gizarte Segurantzako afiliazioaren urte arteko aldakuntza-tasaren urte arteko bilakaera, kultura-jardueren arabera (EJSN 4 digitu), 2020ko lehenengo eta bigarren hiru hilabeteetan

Jarduera	1H	2H
Arte eszenikoetako jarduerak osagarriak	% 5,4	-% 31,1
Artxiboetako jarduerak	% 0,0	-% 40,0
Liburutegietako jarduerak	-% 26,1	-% 15,8
Museoetako jarduerak	% 2,0	% 8,7
Arte eszenikoak	-% 6,0	-% 5,9
Arte plastikoak eta ikusizkoak	% 3,4	-% 5,5
Arte- eta literatura-sorkuntza	-% 0,9	-% 11,6
Leku eta eraikin historikoen kudeaketa	% 0,0	-% 6,7
Ikuskizun-aretoen kudeaketa	% 9,8	% 3,4
Ikus-entzunezko industria	% 23,1	% 23,8
Industria editoriala	-% 6,0	-% 4,4
Industria fonografikoa	% 5,7	% 5,3
Bideojokoa/Digitala	% 3,2	% 0,0
Guztira	% 0,0	-% 1,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Gizarte Segurantzako afiliazioaren hilabete arteko aldakuntza-tasaren bilakaera, kultura-jardueren arabera (EJSN 4 digitu), 2020ko maiatza-abuztua

Jarduera	Mar-Mai	Mai-Eka	Eka-Uzt	Uzt-Abu
Arte eszenikoetako jarduerak osagarriak	-% 6,2	% 0,0	% 2,2	% 0,0
Artxiboetako jarduerak	-% 25,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Liburutegietako jarduerak	% 0,0	-% 5,9	% 0,0	% 6,3
Museoetako jarduerak	% 0,0	-% 3,8	% 10,0	% 0,0
Arte eszenikoak	-% 2,1	-% 3,6	% 5,3	-% 3,8
Arte plastikoak eta ikusizkoak	-% 4,4	% 0,0	% 1,2	-% 1,1
Arte- eta literatura-sorkuntza	-% 3,8	-% 6,8	-% 2,1	% 4,3
Leku eta eraikin historikoen kudeaketa	-% 7,1	% 7,7	% 0,0	% 7,1
Ikuskizun-aretoen kudeaketa	% 3,3	-% 3,9	-% 4,9	% 0,0
Ikus-entzunezko industria	-% 1,5	% 13,5	-% 1,3	% 5,8
Industria editoriala	-% 0,3	-% 0,1	% 0,5	% 0,4
Industria fonografikoa	% 5,4	% 2,6	-% 2,5	-% 2,6
Bideojokoa/Digitala	-% 0,7	% 1,6	% 0,4	% 0,0
Guztizko orokorra	-% 1,1	% 0,8	% 0,6	% 0,5

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Gizarte Segurantzako afiliazioa kultura eremuko jardueretan, afiliazio-erregimenaren arabera 2020ko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan (Hilabetearen itxierako datuak)

	Martxoak 30	Urte arteko aldakuntza %	Ekainak 30	Urte arteko aldakuntza %
Erregimen Orokorra ¹	2.932	+% 0,1 (+3)	2.940	-% 1,1 (-34)
Autonomoak	1.332	-% 0,4 (-5)	1.313	-% 3,6 (-49)
Guztira	4.264	% 0,0 (-2)	4.253	-% 1,9 (-83)

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

Gizarte Segurantzako afiliazioa kultura eremuko jardueretan, sexuaren arabera lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan (Hilabetearen itxierako datuak)

	Martxoak 30	Urte arteko aldakuntza %	Ekainak 30	Urte arteko aldakuntza %
Emakumeak	1.567	+% 0,9 (+16)	1.560	-% 3,9 (-64)
Gizonak	2.697	-% 0,6 (-14)	2.693	-% 0,7 (-19)
Guztira	4.264	% 0,0 (-2)	4.253	-% 1,9 (-83)

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta

¹ Artisten Erregimen berezia barnean hartuta

b. Enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente aktiboak

	25-maiatza	24-iraila
Kultur Ekintza	27	26
Arte Eszenikoak	21	20
Arte Eszenikoak Arte plastikoak eta bisualak- argitaratze-industria	1	1
Arte plastikoak eta ikusizkoak	5	5
Kultura eta Sormen Industriak	107	101
Ikus-entzuneko industria	15	14
Industria Editoriala	86	82
Bidejokoak/Digitala	6	5
Ondarea	6	5
Liburutegiak	2	2
Museoak	2	1
Ondare historikoa	2	2
Guztizko orokorra	140	132

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

